



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

EREIAROA

Jasangarritasunaren eta sormenaren arteko gurutzatzea

Trantsizio-garaian bizi gara, eta aldaketa garrantzitsuak ditugu ekologian, gizartean, kulturean, ekoizpenean... Aurrera atera ahal izateko, gauzak orain arte ez bezala egin behar ditugu. Eta horrek aukera eta egokiera ugari eskaintzen dizkigu.

1. NOLA LAGUNDUKO DUGU TRANTSIZIO HORIETAN?

Inertzia horiek gainditzen laguntzeko sortu da EREIAROA, lurraldearekin eta hango eragileekin lotura handiagoa duten eraldatze-prozesu jasangarri eta sortzaileen aldeko apustua. Proposamenak eta soluzioak sortzeko aukera bat da. Proposamen eta soluzio horiek garatu egin daitezke, eta zerbitzu, produktu, material eta jarduera jasangarri, osasungarri, zirkular eta erantzunkideagoak ekarri.

Elkar ezagutzera, konfiantzazko harremanak sortzera, kooperazio-eremu potentzialak identifikatzera eta baterako proiektuak abiarazteko oinarriak ezartzera bideratutako prozesu bat da.

Aclima Basque Environment Cluster-ek eta Tabakalera sorkuntzaren eta kultura garaikidearen guneak —zeina New European Bauhaus proiektuaren parte baita— batera landu dute EREIAROA. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuaren Ekonomia Sortzailea programak finantzatzen du proiektua.

2. ZEREN INGURUAN EGINGO DUGU LAN?

Gipuzkoako ingurumen-enpresen eta sektore kultural eta sortzailearen arteko gurutzatzean zentratuko da EREIAROA. Hautatutako parte-hartzaileen eta haien profil eta interesen arabera izango dira azken gaiak, baina hona hemen adibide batzuk:

- 360º-ko hiri-berroneratzea eta lurralde erresilienteak.
- Naturan oinarritzen diren soluzioak, hiri-ingurunean, hirien inguruetan eta landa-ingurunean integratuak.
- Ekonomia zirkularra, baliabideen kudeaketa eraginkorra eta ziklo ekoeraginkorrak.
- Bizi-kalitatea; ingurumen-kalitatea eta osasuna hobetzea.

Lan-eremu horiek lehentasuna dute ikuspegi globala eta tokiko ikuspegia lotzen dituzten esparru estrategikoetan; besteak beste, NBERen Agenda 2030ean eta EBren New European Bauhaus proiektuan, eta, Euskadin, Klima-aldaketaren aurkako KLIMA 2050 estrategian eta BULTZATU 2050 Hiri Agendan.

3. NORK PARTE HAR DEZAKE?

Zentzu zabalean eta diziplinez harago ekoindustriaren eta ingurumenaren alorretan eta kulturaren eta sormenaren alorretan lan egiten duten enpresa, erakunde eta profesionali zuzendua dago EREIAROA.

Partekatzeko, batera sortzeko eta harritzeko prest dauden pertsonen talde bat osatu nahi dugu, asko jota 12 lagunekoa. Pertsona konprometituak izan behar dute, laguntzeko gogoia dutenak, eta ezin susmatuzko alderdiak eta sor daitezkeen aukerak aztertzeko prest etorri behar dute. Bateko eta besteko ibilbide eta gaitasunak, askotariko eremu eta diziplinak eta hainbat esperientzia eta espektatiba bateratuko dira taldean. Lankidetzaren erretzen hasteko behar diren 12 hazi horietako bat zara?

4. ZER LORTUKO DUZU PARTE HARTUTA?

- Jakin-mina elikatzea, aukera berriak azaleratzen laguntzea eta lankidetzarako esparru potentzialak eta interes zehatzak identifikatzea.
- Eragile askotarikoek/osagarriek elkar aintzatestea eta harreman profesionalak sortzea, lankidetzaren bultzatuko duen konfiantza-giro batean.
- Lankidetzaren prozesuak martxan jartzeak eta baliabide eta kapitalek dakartzaten behar eta espektatibak formulatzea, indibidualki eta taldean.
- Aurreproiektuak definitzea aukera-jokalekuetan oinarrituta.
- Aurreproiektuak garatzeko laguntza: hurrengo urratsak zehaztea, bazkideak eta laguntzak bilatzea, deialdiak aurkeztea, etab.

5. ZERTAN DATZA PROZESUA?

EREIAROA prozesua 2022an gauzatuko da, zenbait fasetan. Baterako lan-saioak eta aurkezpenak Tabakaleran egingo dira, Donostian (jarduerak online egitera behartzen duen egoerarik ez badago).

1. FASEA: HAZIAK HAUTATZEA (2022ko otsaila-martxoa)

- Hautagaitzak aurkeztea [formularoaren bidez](#). (Otsailaren 28a arte, astelehena)



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

- Taldea hautatzea (gehienez 12 partaidekoa). Martxoaren 9a arte.
- Elkarrizketak egingo zaizkie banaka hautagaiei, profil bakoitza programaren eta taldearen testuinguruan kokatzeko.

2. FASEA: LABOREAREN GARAPENA (2022ko martxoa-ekaina)

Elkarrekin aritzeko eta talde-lanerako lau saio, bata bestearekin erlazionatuak. EREIAROAn parte hartzeko, erabat erlazonala eta talde-lanean oinarritua denez, **beharrezkoa da saio hauetan guztietan parte hartzera konprometitzea**. Hona hemen egunak:

- Martxoak 22, asteartea, 9:30etik 14:00etara.
- Apirilak 26, asteartea, 9:30etik 14:00etara.
- Maiatzak 24, asteartea, 9:30etik 14:00etara.
- Ekainak 28, asteartea, 9:30etik 14:00etara.

Saio horietan bi une-mota konbinatuko dira; funtzio desberdina izango dute, baina interdependenteak dira:

- **Haziak.** Nor gara? Elkar ezagutzea, nork bere burua aurkeztea, eta dibertsitatearen, desberdintasunen eta osagarritasunaren balioa azpimarratzea. Beharrak, motibazioak eta espektatibak azaltzea. Zer daukagun eta zer falta izan daitekeen aztertzea.
- **Laborea.** Zer egin dezakegu elkarrekin? Landu daitezkeen ideia posibleak, aukera-eremuak eta lan-lerroak identifikatzea, lankidetzan eta hibridazioan oinarrituta. Helburu komun bat aurkitzea



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

(zertarako), lankidetzaz esparru bat edo lankidetzaz proiektu posible bat definitzea (zer), beste zer eragile behar izan daitekeen ikustea (nor) eta gauzatzeko modua zehaztea (nola).

3. FASEA: EMAITZAK BILTZEA (2022ko uztaila-iraila)

- Ondorioak, ikasitakoak eta egin daitezkeen hurrengo urratsak zehaztea.
- Azken jardunaldia.

6. NOLA PARTE HARTU?

EREIARO Arako hautatuko den 12 hazietako bat izan nahi baduzu, lehenik eta behin, ziurtatu saio guztietan parte hartzeko aukera izango duzula. Hala bada, [otsailaren 28a \(astelehena\) arteko epea duzu izena emateko](#).

7- JABETZA INTELEKTUALA

Parte-hartzaile eta/edo ordezkari guztiak bermatuko dute deialdi honen harira aurkezten diren proiektu, dokumentu eta ikus-entzunezko material guztiak, baita, hautatuak izanez gero, deialdi honetan parte hartu bitartean sortzen diren elementu guztiak ere, originalak direla eta ez dituztela urratzen hirugarrenen jabetza intelektualeko eskubideak.

Oinarri hauek onartuz gero, hautatutako parte-hartzaileek eta/edo ordezkariak baimena ematen diote Tabakalera, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Acimari jaso dituen edo laborategiko proiektuak gauzatzeko prozesuan sortutako dokumentuak eta testuzko, irudizko edo ikus-entzunezko material guztiak egun ezagutzen ditugun euskarri mota guztietan erabiltzeko, betiere xede bakarra izanik deialdia, haren edukia eta haren emaitzak herritarrei jakinaraztea eta haien eskuragarri jartzea, edozein kanalen bidez eta doan. Ondorioz, Tabakalera eskubidea izango du eduki hori ikusgai jarri eta



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

publikoki komunikatzeko, edozein kanalen bidez, izan proiektua gauzatu bitartean, izan hura bukatu ondoren, epemugarik gabe.

Esandako guztiak ez du eraginik izango autorearen eskubide moraletan, ezta gorago aipatutako dokumentuei eta testuzko, irudizko edo ikus-entzunezko materialari dagokien jabetza intelektualaren ondare-edukiaren eskubide guztien titulartasunean; horiek materiala sortu duten parte-hartzaileen eta/edo ordezkarien esku egoten jarraituko dute.

Edonola ere, parte-hartzaile edo ordezkari bakoitzak Tabakalera, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aclimaren aurrean erantzun beharko die hirugarrenek jabetza intelektualari buruz jar ditzaketan erreklamazio guztiei, honako hauei dagokienez: (i) deialdi honen harira aurkeztutako proiektuak, dokumentuak eta testuzko, irudizko edo ikus-entzunezko materialak eta (ii) hautatuak izatekotan deialdian parte hartu bitartean sortutako dokumentuak eta testuzko, irudizko edo ikus-entzunezko materialak; hala, Tabakalera, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aclimari kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio kontzeptu horiei dagokienez egon litezkeen erreklamazioen harira sortutako kalte eta galera guztiengatik.

Halaber, eta Tabakalera, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aclimaren markak, logoak eta izena ustiatzeko lizentzia emango die hautatutako parte-hartzaile edo ordezkariari. Lizentzia hori ez-esklusiboa, doakoa eta besterenezina izango da, eta proiektuen testuinguruan sortzen diren ikus-entzunezko lanak banatzeko eta zabaltzeko aurkezpenetan baino ezingo da erabili.

8- DATUEN BABESA

Parte-hartzaileei edo ordezkariari jakinarazten zaie oinarri hauek onartuz gero, baimena ematen diotela Tabakalera, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aclimari eskaera aurkezten den unean eta, hautatuak izatekotan, deialdian parte hartzen duten bitartean emandako datu pertsonalak tratatzeko, eskaera izapidetu eta kudeatu eta beraz zabaltzeko lanak egin ditzan.

Datu pertsonal horiek erakunde eta organismo publikoei jakinaraziko zaizkie legez derrigorrezkoa bada. Halaber, deialdian parte hartzeko hautatuak izan



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

diren parte-hartzaile edo ordezkarien irudia eta izenak Tabakalera, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aclimaren webgunearen bidez edo Tabakalera, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aclimak bere jardueren berri emateko erabiltzen dituen euskarri ukigarri edo ukiezinen bidez helarazi ahalko zaizkie hirugarrenei, 10. oinarrian ezarritakoarekin bat eginez.

Testuinguru honetan, jakinarazten da datu pertsonal horiek ematea beharrezkoa dela; ondorioz, datu horiek ematen ez badira, laguntza publikoa jasotzeko eskaera ez da aintzat hartuko eta eskatzaileak ezingo du proiektuan parte hartu.

Tabakalera, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aclimak hautagaitza baloratzeko eta, hala badagokio, deialdian izango duten parte-hartzea kudeatzeko eta lege-betekizunak betetzeko beharrezkoa den epean baino ez ditu gordeko parte-hartzaile edo ordezkarien datuak.

Edonola ere, parte-hartzaileei jakinarazten zaie eskubidea dutela (i) Tabakalera, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aclimari eskatzeko beren datu pertsonalak atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, beste norabait eramateko edo datuen tratamenduari uko egiteko; horretarako, idatzizko eskaera bat bidali beharko diote Tabakalera, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aclimari, pribatutasuna@tabakalera.eus helbide elektronikora, gaia "2de0 serieak 2022" delarik eta datuen titularrak sinatutako gutun bat erantsita (jakinarazpenetarako helbidea adierazi beharko da) eta NANaren kopia batekin. Horrez gain, eskubidea dute (ii) Datuen Babeserako Espainiako Agentzian edo eskumeneko beste edozein kontrol-agintaritzatan erreklamazio bat aurkezteko, bereziki beren eskubideak errespetatu ez direnean.

9- PARTE-HARTZAILEEN IRUDI-ESKUBIDEAK

Oinarri hauek onartuz gero, deialdi honetan parte hartzeko hautatuak diren parte-hartzaileek edo ordezkariak berariaz ematen diote baimena Tabakalera, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aclimari (i) beharrezko bitarteko teknikoaren bidez (argazkiak, bideoak, etab.) proiektuan izan duten parte-hartzea



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

erregistratzeko, parte-hartze hori Tabakalera, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aclimaren espazioetan egiten denean eta (ii) irudi horiek eta beren izena Tabakalera, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aclimaren webgunean eta/edo beste edozein euskarri ukigarri edo ukiezinetan erabili eta erreproduzitzeko, herritarrei deialdi honen xedea, edukia eta emaitzak ezagutarazi eta horiek gizartearen esku jartzeko.

Edonola ere, parte-hartzaile edo ordezkariari jakinarazten zaie edozein unetan dutela baimen hori kentzeko aukera.

10- OINARRIAK ONARTZEA

Deialdi honetan parte hartzen dutenek, bertara aurkezteagatik bakarrik, onartu egingo dituzte oinarri hauek. Eskaeran informazioaren bat falta bada, partehartzaileak deialditik kanpo geldituko dira.